

Santo Tomas festa gaur eta bihar

■ Gaur eguerdian ikastetxe gehienetan txistorra jana eta ekitaldi bereziak egingo dituzte ■ Bihar, larunbata, ekitaldiak Orkolagan, Karabelen, Jubilatu Etxean, Elutxetan, Zingi-Zangan eta abar.

SANTO Tomas egunaren bueltan ekitaldi asko egingo dira Hernanin gaur eta bihar. Gaur, Santo Tomas bezpera ekitaldi gehienak herriko ikastetxeetan izango dira. Ia denetan txistorra jana eta bestelako ekitaldiak egiten dituzte, eta bereziki Inmaculada ikastetxean baserriko produktuen azoka eta dena egiten dute.

Kontzertua Orkolagan

Larunbatean Hernaniko taberna gehienetan izango dira txistorra pintxoak, baina, horretaz gain ekitaldi asko egingo dira Santo Tomas eguna ospatzeko. Orain taberna itxita badago ere, Jubilatu Etxean urtero bezala txistorra eta sari banaketa izango da, eguerdian.

Orkolagan eguerdikoa 12:00etan txistorra eta barri-



Inmaculada ikastetxeak baserriko produktuen azoka antolatzen du Santo Tomasetan.

kotea izango dira, eta arratsaldeko 18:00etan kontzertua: *Selektah Sound System*, *Afonia Hell Beer Boys*, *Sobredosis de Mistol*, *Ostiada oi* eta *40 de fiebre* taldeak arituko dira plazan. Ekitaldiak Martxan auzo elkarteak eta auzoko zenbait taberna eta taldek

antolatu dituzte, eta Angel Mari Monroy eta Guindilloren omenez izango dira.

Karabel auzoan ere urtero izaten da txistorra Santo Tomas egunean. Belkara auzo elkarteak antolatuta, arratsaldeko 17:30etatik aurrera pintxoak eta sagardoa izango dira.

Elutxeta sagardotegiak ere urtero antolatzen du barrikotea garaitu honetan, bertsolari eta trikitilariekin. Bihar Mañukorta, Larrañaga eta Epelde trikitilariak jarriko dute festa afulondoan.

Zingi-Zanga tabernan ere barrikotea da bihar. □

Ainhoa Garzia eta Ibon Fernandez atxilotu dituzte

FRANTZIAKO poliziak Ainhoa Garzia eta Ibon Fernandez hernaniarrak atxilotu ditu eta ETAko komandoen buru izatea leporatzen die. Bi hernaniarrak Baiona ondoko herri batean atxilotu dituzte, kontrol batean, pistola bana zera-makitela. Poliziak zenbait atentatuetan parte hartzea leporatzen die. Ainhoa Garzia eta Ibon Fernandezekin hiru dira azken egunetan atxilotutako hernaniarrak eta atxilotetak salatzeako mobilizazioak egingo dira igandera bitartean, 20:00etan Gudarien plazan. □

Gabon kantuak Doberan

DOBERAK Gabon kantu ikastaroa antolatu du gaur arratsalderako. Maider Ansa arituko da erakusten eta arratsaldeko 18:00etan izango da, Doberako lokal berrian (Larramendi 11, behe). Ikastaroa debalde da. □

Juanpe Plaza fiantzapean libre

JUANPE Plaza eta Ezker Abertzaleko beste hainbat buruzagi fiantzapean libre gelditu dira, gaur Garzonen aurrean deklaraturak. Garzonek bakoitzari 12.000 euroko fiantza jarri dio dirutan ordaintzeko, Fiskalak inongo fiantzarik eskatu ez badu ere. Denek astero epailearen aurrean aurkeztu beharko dute, gertueneko epaitegian. Plazak adierazi duenez, deklarazioa lasai joan da eta iragarri bezala ez dute beren aktibitate politikoari buruzko argibiderik eman. □

Paroia ia erabatekoa zentroan, eta txikiagoa poligonoetan

■ Goiz eta arratsalde mobilizazioak egin ziren herrian, Duintasun Nazionalaren egunean.

BI orduko lan-uztea deituta zegoen atzo *Euskal Herriak erantzun* ekimenak antolatuta, eta paroak segimendu ezberdina izan zuen herri barruan eta poligonoetan. Antolatzaileek zabalduak datuen arabera, herri barruan, komertzioa eta ostalaritza ia erabat gelditu zen, Udaletxeko langileek ere bat egin zuten paroarekin eta Langile ikastolak ere ordubeteko geldialdia egin zuen. Poligonoetan, ordea, paroak segimendua txikiagoa izan zuen.

Manifestazioak

Eguerdiko 12:00etan eta arratsaldeko 20:00etan manifestazioak egin ziren egoera politikoa salatu eta duintasu-



'Duintasun Egunean' eguerdian egindako manifestazioa.

naren eta eskubideen alde. Eguerdian, 250-300 lagun inguru bildu ziren eta Zin-

koenean trafikoa gelditu zuten 10 minutuz. Antolatzailen esanetan, borroka

hori ez dago Ezker Abertzale klabean planteatua, Euskal Herri klabean baizik. □



ADARRA

ETXE TRESNAK S.A.

Txirrita 11
Tel. 943 55 04 27
20120 HERNANI (Gipuzkoa)

expert TELEBISTAK - BIDEOAK - BIDEOKAMARAK - ETXE TRESNAK

ANEXO

Izpizua kalea 21 - Tel. 943 55 03 81 - 20120 HERNANI

Gabonetan eskaintza bereziak:

- TV C PHILIPS 21"-stereo-TXT- frantsesak: 239,80 euro
- PHILIPS BIDEOA -stereo, 6 kabezal, frantsesak: 168 euro
- MICROHONDAS SAMSUNG grillarekin: 102 euro
- ORBEGOZO Deshumifikatzailea. 80m²rako egokia: 198 euro

Gabonetan larunbat arratsaldetan ere zabalik.

GasHernani

Gudarien Enparantza 14 - Tfnoa: 943 33 09 28 - 20120 HERNANI

GasHernani

Zure etxerako energia naturala

GAS NATURALA

Eguberri zorionsuak opa dizkizuegu!



Erremonteko binakako txapelketan favorito garbirik ez

ERREMONTEKO binakako txapelketa atzo aurkeztu zen Galarreta frontoian. Bost bikote arituko dira, baina, ez dago favorito garbirik: Ezkurra-Urko, Zeberio II-Aizpuru, Altuna II-Etxabe, Altuna I-Eizagirre eta Iñigo-Lizaso.

Txapelketa bihar hasiko da Galarretan, eta aurreneko partidua Etxabe-Altuna II eta Ezkurra-Urko jokatu dute. Etxabek bi aldiz jantzi du binakako txapela eta azkenean Altuna IIrekin gainera. Aurreko urtean Zeberio II eta

Iriarte gelditu ziren txapelkun, baina, aurreko Iriarte lesionatuta dago eta ez da txapelketan izango.

Finala Euskalen
Finala, otsailaren 15 edo 22an jokatu da, Euskalen. □

Genma Zabaletak politika ausarta aldarrikatu zuen

GEMA Zabaleta, Jose Iriarte *Bikila* eta Patxi Zabaletak itxi zuten asteazkenean Hikak antolatutako mahai inguru erronda. Gema Zabaletak esan zuen oinarriko kontsentsu asko hautsita daudela, eta berriro politikari heldu behar zaiola. Berak politika ausarta defenditu zuen eta konfliktoaren zai-

netara jo beharra azpimarratu zuen. *Bikilak* Marcos subkomandantearen eskaintza aztertzeko zela bota zuen; Patxi Zabaletak defenditu zuen sujeta nazionala Euskal Herri osoa izan arren, erabaki gunea ez dagoela zertan bakarria izanik eta Nafarroak berea behar zuela aldarrikatu zuen.

Tentsio momentua
Mahai inguruan tentsio handiko momentua izan zen. 20:00etan manifestazioa zegoen konbokatua eta manifestariak mahai inguruko aretora sartzen saiatu ziren, builaka. Antolatzailerik atea itxi behar izan zieten, eta manifestazioak bere bidea segi zuen gero. □

JASOTA BEZALA

Oso ondo, baina
Hikak zera adierazi nahi du publikoki Hernanin abenduaren 16, 17 eta 18an antolatutako mahai inguruen gainean:
1. Eskerrak gure gonbidapena onartu duten 7 hizlariak (Batzarre, EAJ, SA, PSE-EE, Aralar eta Zutik). Eskerrak prentsari, bereziki Kronika eta Diario Vasconi. Eskerrak moderatzaileei, eta azkenik, bertan izan diren pertsona guztiei (asko izan dira) joan izanagatik, parte hartzeagatik eta

egoten jakiteagatik.
2. Barkamenak EA eta IU-EBko ordezkariak ez gonbidatzeagatik. Motiboa ez da izan inor baztertu nahi izatea. Iruditzen zitzaigun beste mahai inguru bat jartzea gehiegi izan zitekeela eta horixe izan da arrazoia. Barkamenak inor mindu bada.
3. Balantzea. Oso ona, jendez, hizlariz, kriterio ugaritasunez, jarraz eta errespetoz....
4. Baina. Ondo iruditzen zaigu 02-12-18n bezalako manifes-

tazioak egitea demokrazia gehiago edo eskubide indibidual eta kolektibo gehiago eskatzeko. Baina, manifestazioa bidez aldatu eta Biterin sartzea Patxi Zabaleta eta Genma Zabaletari gaizki esa-ka eta konsigna botaka hasteko... hori ez da itxura eta ez da bidezkoa. Askatasuna eta giza eskubiderik ez zapaltzeko ez da eskatzen besteak hankapean hartuta. Uste dugu, horrela ez zoazela/goazela inora. Gure elkartasuna bi pertsonen.
Mikel Jaka Sasieta (HIKA)

etxea apaintzeko gauzen eta oparien denda
diseinu grafikoa
serigrafia
andrekale35
kardaberaz, 35. Hernani.
Tel.: 943 33 60 05 - Faxa: 943 33 59 76

HORBEL jatetxea
Urtarrilaren Iean zabalik!
goizean goizetik
Zatoz urteberri egunean
Lizeaga kalea 4
Tel.: 943 33 33 95

AKADEMIA LATINO BERRIA
HABANA SWIN
Saltsa, txa txa txa, batxata, merengea...
KUBA eta KARIBEko erritmoak
IKASTAROKAK
URTARRILETIK aurrera
Umeentzat eta helduentzat
Kubako irakaslea: DAYAMI
Telf.: 943 55 69 13 - 616 26 38 71
(Deitu, 20:30etatik 22:00 arte)
HERNANIN (Larramendi kalean)

Abenduak 21 larunbata
Barrikotea
20,00etatik aurrera.
Mañukorta, Larrañaga eta Epelde 'Porrua'
bertsolariekin.
Izen emateko deitu:
Tel. 943 55 69 81

ELUTXETA
Sagardotegia Erretegia
Oztaran Ballara 20130 URNIETA

EGUZKI PERFUMERIA
Gure dendan, behar duzuna daukagu.
- Perfumeria
- Opariak
- Boutique
- Edertze gela
- Solariuma
EGUZKI PERFUMERIA
Kale nagusia 45 - Tel. 943 551 333 - HERNANI

MARI FERRA
ARRANDEGIA
Nagusia 36 Orkologa 17
943 55 04 89 943 55 27 41
HERNANI

ANTZIOLA KAFETEGIA
Ogia, pastelak, gozokiak, kafea, refreskoak, ...
Bi ordenagailu, jendearen erabilerarako.
Erakusketak.
ANTZIOLA OKINDEGIA
Betiko lekuan gaude, eguneroko ogirik onena banatzen!
ANTZIOLA 3 - Tel. 943 55 17 91
MONTEBIDEO, 3 behe

HITZ BITAN

✓ ETXERAT

Bautista Barandallaren aldeko manifestazioa. Datorren igandean, abenduak 22, manifestazioa egingo da Iruñan, Bautista Barandalla preso libre uztea eskatzeko. Barandallak urdaileko gaixotasun larria du. Hernaniko Etxerategi antolatuta, Atsegindegitik autobusak aterako dira, igandean, 10:30etan. Izena emateko, Garin tabernan.

✓ GOBERNU BATZORDEA

Gobernu Batzordea, gaur. Gobernu Batzordeak ohizko bilera egingo du gaur. Hamar puntu izango dituzte hitz egiteko. Bilera, 08:30etan.

✓ PELOTA

Hernanik Gipuzkoako bi final ditu gaur. Patricia Hoz eta Ixiar Lujanbiok paleta gomako finala jokatu dute, gaur, Irungo Ramuntxo taldearen kontra. Hernaniarrek Ligilako bi partidua galdu dituzte talde horren kontra. Horregatik, oso ondo jokatu beharko dute, gaur, irabazte ezker. 19:00etan Loiolan.

Aitor Gorrotxategik ere finala jokatu du, eskuz banaka, Azkoitiren kontra. Partidu oso zaila hau ere. 20:00etan Beasainen.

✓ SASKIBALOA

Saskibalo jardunaldiak astelehenean. Hernaniko Saskibalo elkarteak antolatuta saskibalo jardunaldiak egingo dira datorren astelehenean, Hernanin. Jardunaldiak 12-13 urteko gazteentzat prestatu dira eta teknika eta jokua lantzeko egingo dituzte. Honekin bukatutzat joko dituzte aurtengo Aste Santuan eta ekainean egindako ekintzak. Astelehenean 10:00etatik 11:30etara, eta 16:30etatik 18:00etara, Hernaniko Kiroldegian. Apuntatzeko, bertara azaldu edo deitu: 943-55 45 13 telefonora.

✓ GABONAK

Gabon kantzak Marieluts auzoan. Langile ikastolako umeak Gabon kantzak kantatzera irtengo dira, gaur, 15:00etan. Haur Hezkuntzakoak eta Lehen Hezkuntzako 1-2 mailatakoak aterako dira eta Marieluts auzoan kantatuko dute.

✓ ZINEA BITERIN

'Lugares Comunes', gaur. Asteburuko zine emanaldien barruan, *Lugares Comunes* pelikula botako dute, gaur, 22:30etan, Biteri kultur etxean. □

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943 550093
- ▶ Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶ DYA: 943 464622
- ▶ Autobusak: 943 556662
- ▶ Anbulatorioa: 943 006666
- ▶ Jokalari anonimoak: 943 331103

☎ FARMAZIAK

- ▶ Egunez: Chucla
Kardaberaz 48
☎ 943 551793
- ▶ Gauzez: Bidaur
Lasarte. Jaizkibel plaza 2
☎ 943 362652